

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

2020/2021 ikasturtea

**MUSIKA HEZKUNTZA:  
ERATZEKO ETA ERALDATZEKO**

**Egilea:** Maitane Iruñ Luluaga

**Zuzendaria:** Cristina Arriaga Sanz

**Leioan, 2021eko ekainaren 9an**

## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	3
<b>I. Marko teorikoa</b> .....	4
1. Hezkuntza, gizartea eta eskola.....	4
1.1. Musika hezkuntza, zertarako? .....	5
2. Musika hezkuntzaren bilakaera: XX. mendetik gaur egunera.....	6
3. Eratu eta eraldatu .....	8
3.1. Musika, aldarrikapenerako tresna gisa .....	8
3.2. Musika hezkuntzaren oinarria eta sormena .....	10
<b>II. Helburuak</b> .....	11
<b>III. Metodologia</b> .....	11
<b>IV. Lanaren garapena</b> .....	12
a. Testuingurua .....	12
b. Proposamenaren helburua, egitura eta zergatia .....	13
c. Proiektuaren abiapuntua eta saioren garapena .....	14
1. Ezagutza eta hausnarketa .....	15
2. Sorkuntza.....	15
3. Grabaketa eta bideoklipa.....	16
4. Balorazioa.....	17
d. Esperientziaren deskribapena .....	17
e. Ikasle eta irakasleen ahotsak.....	18
<b>V. Ondorioak</b> .....	20
<b>VI. Etika profesionala eta datuen babesa</b> .....	22
<b>Erreferentzia bibliografikoak</b> .....	23

## MUSIKA HEZKUNTZA: ERATZEKO ETA ERALDATZEKO

Maitane Iruñ Luluaga

UPV/EHU

Lan honetan, gaur egungo hezkuntza sisteman musika irakasgaiak duen lekua eta nolakotasuna aztertu dira, musika hezkuntzaren bilakaera ezagutu eta egun izan ditzakeen erronkak azaleratuz. Honetan oinarrituz, eskola inguruneari lotuta, ikasleen kezketatik abiatu den esku-hartze bat burutu da, proiektu musikal bat aurrera eramanez. Honek, ikasgela konkretu bateko errealitateari erreparatuta, ikasleen arteko harremanak indartzea, kritikotasuna garatzea eta sormena lantzea izan ditu helburu. Ikasgelako gatazkak eraldatzeko bide izan da elkarlanean eman den kantu eta bideokliparen sorkuntza. Lan honek, arte diziplinak edertasunaren adierazle izatetik haratago ulertarazi nahi ditu, errealitatea ulertu eta hau eraldatzeko balio diezaguketen heinean.

*Musika hezkuntza, sormena, erantzukizun kolektiboa, eraldatu, musika*

En este trabajo se ha investigado el lugar que ocupa la asignatura de música en el sistema educativo de hoy en día, analizando la evolución de la educación musical y planteando los retos que puede tener en la actualidad. En la práctica, ligado al entorno escolar, se ha llevado a cabo una intervención que ha surgido de las preocupaciones de los alumnos, por medio de un proyecto musical. Por supuesto atendiendo a la realidad de un aula concreta, ha tenido como objetivo reforzar las relaciones entre los alumnos, despertar un espíritu crítico y trabajar también la creatividad. El tiempo invertido en crear una canción y un videoclip juntos ha abierto el camino para dar respuesta a los conflictos presentes en el aula. Este trabajo pretende hacer entender las múltiples disciplinas artísticas más allá de ser representativas de la belleza, en la medida en que nos pueden servir para comprender y responder a una realidad concreta y un momento determinado.

*Educación musical, creatividad, responsabilidad colectiva, transformación, música*

This work has investigated the place that music covers in today's education system, analyzing the evolution of music education and presenting the challenges it may have in the near future. Based on this, a musical project has been carried out taking into account both, the school environment as well as the pupils' concerns and interests. The aim of this project was to strengthen relationships among students as well as to stimulate their critical thinking and creativity. The time invested in creating a song and a video together has paved the way to respond to the classroom conflicts. This work aims the understanding of the multiple artistic disciplines beyond the expression of beauty, as far as they can be helpful to understand and respond to a concrete reality.

*Music education, creativity, collective responsibility, transformation, music*

## Sarrera

*Musikaren bidez hizkuntzaren muga hauts dezakedala sinesten dut.*

Anari, euskal konpositore eta musikaria

Musika beti izan da bizitzan oso presente izan dudana zeozer. Ez dut ordea nigan soilik hauteman hori, orokorrean nire inguruan indar handia baitu honek. Gure egunerokotasunak badu soinu bat, melodia bat, zarata bat; normalean bizitzaren etapa ezberdinetan aldatuz doana. Emozioekin lotura estua du musikak eta kantuak bizipen konkretuekin lotzen dituenik ere bada. Anariren aipuarekin aurkeztu nahi izan dut lana, hizkuntzaren mugez haratago baitoa musika, *hizkuntza unibertsala* da (Garzarelli, 2011).

Hau eskolara ekarriz, sehaska kantetarik hasi eta jolas-orduetako abestietaraino musikak badu bere lekua haurengan. Ordea, musika irakasgaia bera, ingurune musikal horretatik kanpo kokatzen da gehienetan. Oroitzen dut nola txirula jotzen pasatzen genituen musika klaseak txikitan, eta noizean behin jaialdiren baterako ezberdina izango zen zerbait prestatu behar bagenuen zoriontsu ginen. Musika aspergarria izatera iritsi zen momentu batean; kezka honetatik abiatzen da lan hau. Musika hezkuntzak egungo hezkuntza sisteman duen papera aztertu nahi du, honen bilakaera ikertu, hortik irakaspenak atera eta egungo paradigma birplanteatzeko asmoz.

Musika modu isolatuan ulertu baino ikasgela eta ikasleen ingurunearekin harremanean egongo den eta tokian tokiko errealitateari erreparatuko dion diziplina gisa ulertu beharrean gaude. Gainera, hezkuntzaren funtzioez ere arituko gara, gizartea eta eskolaren lotura azalduta musika hezkuntzaren papera modu sortzaile eta kritikotatik batean arrazoitzeko bidea ematen baitu.

Honekin lotuta, proposamen bat egin eta aztertu da Bilboko eskola publiko batekin lankidetzan. Proposamen honen oinarria ikertutako gakoetatik abiatuta planteatu da, ikasleen parte-hartze aktiboa azpimarratuz, musikaren ulerkera sortzaile batean, harremanak sendotu eta eraldatzeko asmoarekin. Kritikotasuna eta elkarrekiko errespetua landu dituzte 5. mailako ikasleek, proiektu amankomun bat partekatzeak aldaketak ekarri dituelarik. Aipatutako kezka, ikerketa eta esku-hartzea barnebiltzen dira datozen orrialdeetan.

## I. Marko teorikoa

### 1. Hezkuntza, gizartea eta eskola

Hezkuntzak, pentsamendu kritikoa garatuko duten herritarrak heztea izan behar du helburu, errealitatea interpretatzeko gai izan eta honetan esku hartuko duten subjektuak heztea hain zuzen (López, 2012). Izan ere, hezkuntza bizipenen bidezko garapen fisiko, sozial eta kognitibo oro da, gizartetik bereizi gabe ulertu behar dena. Are gehiago, hezkuntza prozesua bera eskolako paretetatik haratago doa; hezkuntza ez baita estruktura pedagogiko zehatz bat duen prozesu hutsa, gizartearen funtzionamendu soilaz ere hezi egiten gara. Ikasleek bizipen eta esperientziatik ematen eta hara jasotzen duten guztia hezkuntzaren parte da (Vélez, 2013).

Egungo paradigman, eskola, hezkuntza sistema formalaz arduratzen den instituzioa litzateke, gizarte baten jakintza zein balioak transmititzea eta honek barnebiltzen duen norabidean subjektuak heztea helburu duena (Elliott eta Silverman, 2015). Eskolaren egitekoa ez da soilik ikasleari arlo espezializatuetakoa ezagutza ugari irakastea, haurrak ikasten ikas dezan baizik, autonomia intelektuala lor dezan saiatzea (López, 2012). Izan ere, jakintzaren transmisio hutsa alde batera utzi eta errealitatean fokua jartzen duten pedagogoen, gizaritari, kulturari eta gizabanakoari erreparatzen diotenak, eskola ekoizpen kultural, sozial eta pertsonaleko gune gisa ikusten dute (Regelski, 2008).

Garrantzitsua da deseraikitze eta berreraikitze kultureko ariketa bat egitea, daukagun eskolaren barruan zer aldatu behar litzatekeen eta zerk iraun beharko lukeen hausnartu eta definitzeko. Eskola-kultura berri batean oinarritutako bizikidetzaren sozialeko eredu berriak kolektiboki eraikitzen bidean irudikatu beharrean gaude (Mercadal, 2007). Ikasgelan ematen diren harremanetan aldaketak sortzeko erronka gisa, eskolak bere gain hartu behar du ikasleen prestakuntza etikoa eta morala. Norabide honetan hezteko, eskola giroko eguneroko naturalaz baliatu behar dugu (Jackson, 2002).

Hala ere, aldaketan fokua jarri nahi badugu ikasgelan jarri behar dugu arreta; etorkizuneko irakasle izango garen heinean, eratu eta eraldatzeko izango dugun lekua ikasgela izango baita. Egunerokoan lanean jardungo dugun espazioa izango da, jakintza helarazteaz haratago, etorkizuneko herritar izango diren ikasleak hezteko eta sozialki garatzeko izango dugun abagunea (Vélez, 2013). Esan gabe doa, ikasgela errealitate oso ezberdinak bizi dituzten haurren topaleku dela. Joseba Sarrionandiaren (1992) hitzetan;

“Bakoitzak bere sustraiak, bere haurtzaroa, bere gorputza, bere pasioak, bere ekibokazioak aldean daramatza. Bakoitza bere ipuinarekin bizi da”.

Ordea, errealitate hauek guztiak badute zerbait amankomunean. Sehaska kantetatik hasi eta jolastokian abesten dituzten jolasetaraino musikak haurren bizitza zeharkatzen baitu (Burnard eta Murphy, 2017).

### **1.1. Musika hezkuntza, zertarako?**

Musikak eskolan duen presentzia aztertu eta honen ezaugarriei erreparatuko diegu, zehazki musika hezkuntzaren nolakotasunaz jabetze aldera. Musika, errealitatea erreproduzitzetik haratago, errealitatea bera ulertzeko tresna izan daiteke. Honek, izaera unibertsala duela esan genezake, izan ere, musika giza ezaugarri bat da, espeziearen garapen eta eboluzioan ezaugarritzen gaituena. Hezkuntza musikalaren bidez sormena eta erantzukizun kolektiboa garatu behar ditugu (Garzarelli, 2011).

Hala ere, XX. mendearen erdialdera arte, musika eta jarduera artistikoak hezkuntza orokorrean sartzeko erabili izan den argudiorik garrantzitsuenak, artearen edertasunaren eta izaera estetikoaren bertute sentzibilizatzailea izan da (Gainza, 2014). Ordea, badira artearen edertasunaz haratago, honi, eta zehazki musikaren diziplinari, bere garrantzia soziala aitortu diotenak. Esaterako, Edgar Willems (1890-1978), jatorri belgikarreko psikopedagogo musikalak, ikuspegi integratzaile batetik, musikaren bertuteek, edertasunera (estetika) ez ezik, ona (etika) eta egiara (filosofia) ere igortzen zutela baieztatzen zuen (Damaceno, 1980).

1980ko hamarkadatik aurrera, musikak betetzen dituen funtzio ugariengatik eta giza jokabidean duen eragin erabakigarriagatik, dimentsio anitzeko esperientziatzat hartuko da (Elliott eta Silverman, 2015). Globalizazio betean, hainbat eta hainbat bazterketa sozialei erreparatu, besteak beste, arrazari, generoari, kulturari eta klase sozialari dagozkionak eta gizartean esku hartzeko tresna gisa ulertzen hasten da musika. Finean, arteen heziketa paperak, tradizioz haien balio estetikoari soilik lotuta egon denak, egun, arte jarduerak gizakiarengan eragiteko duten ahalmena adierazten du. Ez soilik alderdi sensorial eta afektiboetan, baita garapen intelektual eta sozialean ere (Gainza, 2014).

Gauzak horrela, musika ez da soilik arte ekintza bat izateagatik irakatsi behar; funtsean, gaitasun kognitibo, emozional, fisiko eta intelektualak garatzen laguntzen duelako baizik. Beraz, pentsamendu kritikoa duten herritarrak prestatzeko ere balio du musika

hezkuntzak, gizartean aktiboki parte hartuko duten eta bertan dauden erronka ugariari aurre egin beharko dieten pertsonak heztea helburu izanik (Fernandez eta Jorquera, 2017). Eskolak, lan handia du zeregin honetan eta ezinbestekoa da indibidualki zein kolektiboki garatzeko musika praktikara bideratuko diren, parte hartzeko, adierazteko eta komunikatzeko espazioak sortzeko beharraz jabetu eta eratzzea. Musika hezkuntza ikasgelan azaleratzen diren gatazken eraldaketarako tresna izan daiteke (Cabedo eta Díaz, 2015).

Beraz, hein handi batean musikak modu isolatuan jarduten du hezkuntzan, eskolaz kanpo gertatzen den horri erreparatu gabe (Garzarelli, 2011). Ikasleen beharrianak kontuan hartuko dituen heziketa prozesu batez hitz egin nahi badugu gabezi bat ikus daiteke arlo honetan. Hona hemen lan honen muina. Hutsune horri erreparatu eta gizarteak eskolan duen isla kontuan izanik, musika hezkuntzaren nolakotasuna eta papera aztertzea dute helburu jarraian datozen ideiek.

## **2. Musika hezkuntzaren bilakaera: XX. mendetik gaur egunera**

“Musika hezkuntza XX. mendean” izeneko artikuluan (Gainza, 2004) aztertzen da musika hezkuntzak eskolan izan duen bilakaera, artikulua honetatik abiatuta garatu da puntu hau, beste pedagogo batzuen ikuspegiak gehituz; gailendu izan diren pedagogia eta metodo ezberdinak ezagutu eta hauetatik irakaspenak ateratzeko.

XX. mende hasieran Europan hasten da eskola aktiboaren mugimendu pedagogikoa; hau, hezkuntza musikalean ere eragiten hasten delarik. Metodo aktibo hauei forma ematen hasten dira Dalcroze, Willems eta Martenot pedagogo musikalak, besteak beste. Dalcroze, esaterako, ikasleak bapatekotasunean hezten saiatzen da, dantzari, gorputzari eta espresioari garrantzia aitortuz. Musikaren aurrean momentuan erreakzionatzera bultzatuz, mugimendurako aukera berriak esploratzeko bidea ematen die (Bachmann, 1996).

50. hamarkadatik aurrera metodo instrumentalekiko, kantua barne, apustua egiten dute Orff, Suzuki, Kodaly bezalako pedagogoek. Metodo horietako bakoitzak ekarpen espezifiko eta osagarri bat egingo du, parte-hartze aktiboa kontuan izanik. Musikalizazioa, kantua, instrumentalizazioa, mugimendua, dantza, talde lana, eta sormena modu ezberdinetan aplikatzen dituzte.

Hogei urte beranduago, metodologia ekarpen garrantzitsuei batuko zaizkie konposatzaile pedagogo berriak. Soinu sormena izango dute hizpide, musika garaikidearen tekniken bidez. Dennis, Schaffer eta Paynter pedagogoen tekniketan ikasleek esku hartzen dute sorkuntza musikaletan. Musika ikastetik haratago doaz hauek, sormenari garrantzia aitortzen diote (Gainza, 2004).

1980-90 urteetan kultura berrien ezagutza musikala hedatzen hasten da eta teknologia pixkanaka bere pisua hartzen doa. Aipatzekoa da, Espainiar Estatuan orduan txertatzen dela hezkuntza musikala Curriculumean. Aldaketa sakonak ematen diren garaiak dira, migrazio-fenomenoak, teknologia berriak eta globalizazioa direla medio. Politika neoliberalekin bat, paradigma eta eredu pedagogiko berriak (askotariko teknologiak, musika modernoa, animazioa, multikulturalismoa, ekologia) sartzen dira musika hezkuntzaren merkatuan. Honek guztiak, gizarte osoari eragiten dio eta bereziki eskola curriculumari (Avalos, 1999).

Aitzitik, pedagogia musikalera itzuliz, orain arte aipatutako proposamen hauek guztiak musika tonalaren baitan planteatzen dute euren jarduna. Ordea, bada korrante bat, Sorkuntza Musikalaren Pedagogia, musika ez tonala barnebiltzen duena. Hau, musika hezkuntzako sistema tradizionalak sustatutako musika jardueren ia antipodetan kokatzen da, metrika erritmikoan, altuera eskaletan oinarritutako kode bati atxikita eta mendebaldeko musikaren tonu erreperitorioari mugatuta (Delalande, 2008). Korrante honek edozein soinu material sartzea bultzatzen du, esploratu daitekeen eta adierazteko balio duen elementu gisa.

Musika hezkuntzaren mugimendu berritzaile hori Frantzia sortu zen joan den mendeko 70eko hamarkadan, Delalanderen eskutik. G. Self, J. Paynter, M. Schafer edo B. Dennisen planteamenduekin baditu antzekotasunak pedagogia honek: adierazpenaren eta sormenaren alderdia birbaloratzea eta erabili beharreko soinu materiala esploratzera bultzatzen baitute (Alcazar, 2010).

Sorkuntza Musikalaren Pedagogiak identitate kontzeptual argia eta ondorio praktikoa zehatzak azaleratzen ditu. Delalanderen (1976, 11-30.or) arabera (Alcazar, 2010):

1. Soinu fenomenoak ulertzeko, haurrek berez egiten dute zaraten musika.
2. Musika ez da beti erritmoa eta melodia soilik duena.
3. Musikaria izatea ez da musika jakitea.



Sorkuntzaren Pedagogiaren muina, haurren berezko jardueraren behaketatik abiatzen da. Haurrak, berezko interesa du ahotsaren emisioarekiko eta inguruan dauden objektuak keinu errepikatuen eta askotarikoen bidez manipulatzeko, hau miaketa fasea da. Gero, interesa eta arreta materialetik soinura bertara mugitzen dira, eta haien ekoizpena asmo sinboliko batekin aberasten da, sentimenduak, emozioak edo bizipenak gauzatzeko balio baitu. Honen ostean, adierazpen hori antolatu egiten da eta formaren zentzua barneratzen du, sarritan rolak taldekideen artean banatuz (Delalande, 2008).

Jokabide horiek Piageten jolasaren teorian dute azalpen oinarria. Piagetek hiru etapa bereizten ditu garapen kognitiboan: ariketa jolasa, jolas sinbolikoa eta arau eraikuntza jolasa. Delalandek hiru hitzetan laburbiltzen duen sintesia da (Alcazar, 2010): esploratu, adierazi, eraiki. Izan ere, musika, bere adierazpen guztietan eta mobilizatzen dituen jokabideetan haurren jolasa da (Delalande, Vidal eta Reibel, 1995).

Hortaz, musika hezkuntza ez da soilik musika egitera zuzendu behar; soinuak, doinuak, erritmoak eta horiek interpretatzetik haratago doa. Musikaren bidez, hainbat esparrutan ezagutza sortzeko ideia aurkezten ari da, gaur egun bizi dugun testuinguruan beharrezkoa baita (Elliott eta Silverman, 2015). Ezagutza hori egungo gizartearen helburuekin lotzen da. Gazteen beharrezko ezagutzak, balioak, jarrerak, orientabide moralak eskuratzea; besteak beste, generoarekin, gizarteratzearekin, ingurumenarekin, errespetuarekin, bizikidetzarekin eta desberdintasunekiko arretarekin lotutako gaiak jorratzen jakiteko (Woodford, 2005).

### **3. Eratu eta eraldatu**

Eratu eta eraldatu kontzeptuak *era* izenak gorpuzten ditu. Eratzea lehen pausua litzateke, sortzea. Eraldatzea, aldiz, sortutako horri beste buelta bat ematea, berreraikitzea litzateke. Zentzu honetan, *musika* eratzeko helburu gisa baino haurrak erakartzeko bitartekari moduan ulertu behar dugu. Musika, ikaskuntza partekatua ahalbidetuko den konfiantzazko klima batera hurbiltzeko tresna da, esparru horretan eragin eta eraldaketarako bitarteko bat (Mercadal, 2007).

#### **3.1. Musika, aldarrikapenerako tresna gisa**

Musikak talde sentimendua sustatzeko duen boterea dela eta, musika praktika bateratua elementu sozializatzaile gisa ulertu izan da; ezagunak izan diren kulturen forma musikal

propioetan gizartearen dimentsio estetiko eta kulturalaren parte dira (Elliott, 1989). Tradizioz, musika batera egitea kohesio kulturalako elementutzat hartu izan da, musika partekatzeak adierazpen kultural komun bat partekatzea baitakar (Cabedo eta Díaz, 2015).

Romero-Cardonaren (2004) hitzetan, hizkuntza artistikoak garapen pertsonalean duen garrantzia azpimarratu behar da. Ideiak, esperientziak eta sentimenduak adierazteaz gain, besteekin komunikatzeko aukera eskaintzen baitu. Horretarako, musika hezkuntza ez da teknikan soilik zentratu behar; testuingurua, musika eta musika hezkuntzaren aspektu sozio-politikoak, teknologia eta komunikabideak ere izan behar dira kontuan (Gainza, 1997). Honez gain, musikak beste aspektu batzuk ezagutzeko aukera eman diezaguke: baloreak, gizarte inklusioa, ingurumena, errespetua, aniztasuna eta bizikidetzatza adibidez (Fernández eta Jorquera, 2017).

Ildo beretik, lan honek azpimarratu nahi du musikaren funtzio adierazle, komunikatibo eta aldarrikatzailea. Baditugu historian zehar milaka adibide zeinetan musika aldarrikapenerako baliabidea izan den. Giza talde/komunitate baten kultur espresio den musikak, garai historiko, politiko eta sozial batekin du zerikusia; musika hori ulertzeko testuingurua bere osotasunean ulertu behar baita (Dávila eta Amezaga, 2003).

Nahiz eta lan honen helburua ez den historian zeharreko musika eta mugimendu politikoen azterketa bat, datozen lerroetan erreferentzia batzuk egiteak ondoren etorriko den proposamena hobeto ulertzen lagun dezake.

Lehen adibide gisa, 1940ko hamarkadan sortzen da *bebop* -a, jazz estilo zaharragoen aurkako erreakzio gisa eta jazz musikari gazteenen komunitate baten berrikuntza artistikoaren adierazpen modura. Ordura arte, 30eko hamarkadaren erdialdetik ia II. Mundu Gerra amaitu arte, *swing* -a izan zen Estatu Batuetako publiko nagusiaren musika gogokoena, dantzagarria baitzen. Ordea, 40ko hamarkadaren hasieran, musikari asko zapuztuta zeuden talde handietan jotzeak zekartzan mugengatik eta musikalki *swing* -a irteerarik gabeko kale batean bilatzen zen.

Orduan, adierazpen modu berri eta originalak bilatzen hasita sortzen da *bebop* -a, New York hirian kokaturiko lokalen multzo batean. Pixkanaka ingurune ezberdinetan indarra hartzen hasten da, lekuan lekuko espresio kulturaletatik abiatuz. Errepertorioan eta publikoarekiko jarreretan aldaketa handiak ematen dira, *swing* musikaz gozatzen zuen publikoaren audientzia masiboa publiko elitistagoa bihurtu zelarik. *Bebop* musikariek

lehenetsuna eman zioten berrikuntzari eta iraganari omenaldia egin beharrean, etorkizunean jarri zuten fokua (Valerio, 2009).

Beste adibide esanguratsu bat eta gertutik ukitzen gaituena, zeinetan musika aldarrikapenerako ezinbestekotzat jo den, 80. hamarkadan gailentzen den Euskal Rock erradikalaren mugimendua da. Hirurogeigarren hamarkadan jaiotako euskal kantagintza berriaren ostean dator mugimendu hau, testuinguru oso zehatz batean, zeinetan euskal gazteriaren sektore handi batek definizio krisian zegoen nortasun nazionala adieraztea zuen helburu. Letra gordin eta zuzenek sasoi hartako milaka gazteren errealitate sozial, ekonomiko eta politikoarekin bat egiten zuten. Finean, Euskal Rocka ez da etniari soilik lotuta jaio, garaiko mugimendu politikoarekin lotura zuzena du (Dávila eta Amezaga, 2003).

Hauek dira, besteak beste, adibide batzuk zeinetan musika gizarte baten eraldaketarako tresna izan den. Hala eta guztiz ere, eskala txikiagoan ekarriko dugu hau ikasgelara. Gelako harremanak sendotu eta ikasleen irudimena areagotzea izango baita helburua elkarlanean planteatuko den musika lan batekin. Sormenari bidea ireki eta haien behar zein kezka horietatik abiatuz ingurua eraldatzeko aukera eman nahi zaie.

### **3.2. Musika hezkuntzaren oinarria eta sormena**

Musika hezkuntzak eskolan aurki genezakeen aniztasuna ulertzen lagun diezaguke, beste hainbat arte diziplinak bezala. Klase sozial edota kultura ezberdinetako pertsonak amankomunean izan dezaketen proiektu musikalak esperientzia berriz jantzi eta kooperazioan zein lankidetzan hezte ahalbidetu ditzake ikasleak (Cabedo eta Díaz, 2015).

Eskolako bizikidetzan hobetzeko ikasleen dimentsio emozionala ezinbestekoa da, musikaren eremua eta horrek emozioekin duen lotura aztertutako esparrua delarik (Conejo, 2012). Elkarrekin sortu eta esperientzia musikal bat batera bizitzean, errespetua, elkartasuna eta enpatia bezalako balioak sustatzen dira; modu honetan, esperientzia musikal eta pertsonen garapen emozionalaren arteko lotura indartuz.

Finean, musikak adierazpen artistiko, sortzaile eta afektiboak sustatzen ditu, eta horiek oinarri sendoak ematen dituzte bizitzako egoera ezberdinei aurre egiteko, hala nola komunikazioa, auto-konfiantza edo arazoak konpontzeko ahalmena sustatuz (Cabedo eta Díaz, 2015).

Esperientzia musikal horietaz ari garenean, ezin dugu sormena alde batera utzi, are gehiago, musika saioetan egiten dugun jarduera oro planteatu daiteke ikuspegi sortzaile batetik. Izan ere, haurrek musika ikasteko duten gaitasuna faktore ezberdinen ondorio dela esan genezake: norbere trebetasunak, auto-konfiantza, irudimena, jakin-mina. Musika modu sortzailean irakatsiz eta interesa sustatzen duten esperientziak planifikatuz, haurra sormenez, motibazioz eta adoretz betetzen dugu (Burnard eta Murphy, 2017).

Musika ez da objektu edo produktu hutsa izatera mugatzen, ez baita modu konkretu batean entzun behar den fenomeno akustiko soil bat. Egoera musikal bat bizi denean, izan interpretatuz, sortuz, entzunez edo musikarekin dantzatzuz, inplikaturako pertsonak alderdi ezberdinak esperimendatzen dituzte; emozionala, intelektuala, gorputzekoa... hor esperientzia honen aberasgarritasuna (Samper, 2021).

Funtsean, musika trebetasunak irakasteak, musikaren ezagutzak garatzea dakar. Bide horretan, ikastunak irudimenez parte hartzeko eta haren sorkuntza gaitasuna garatzeko testuinguru sortzaileak bilatu behar ditugu, ikasleak aktiboki parte hartzera bultzatuz: ideiak esploratzen, beren ikaskuntza propioari ekiten, hautuak egiten eta erabakiak kontrolatzen (Burnard eta Murphy, 2017).

## II. Helburuak

Lan honek bi helburu nagusi izan ditu:

- Ikasleen kezketatik abiatutako proposamen musikal bat diseinatzea non euren parte hartzea aktiboa eta ezinbestekoa izango den.
- Proposamenaren emaitzak ikasleengan izan duen eragina aztertzea, bereziki proiektu musikal bat kolektiboki aurrera eramateak ikasgelako harremanetan nola eragin duen.

## III. Metodologia

Lan hau ikuspegi kualitatibotik dago aztertuta, planteatu den proposamena eta honek ikasleengan izan duen eragina zein prozesua sakontasun handiagoz ulertu ahal izateko.

Ikerketa-ekintza metodologiaren arabera (Carr & Kemmis, 1988), saio bakoitzaren ostean musikako irakaslearekin elkartu izan gara, gertatutakoaz hausnartu eta hurrengo klasera begira identifikatutako aspektuak kontuan izanik hobekuntzak egiteko. Gelako tutorearen laguntza ere ezinbestekoa izan da ikasgelako errealitatea hobeto ezagutzeko.

#### **IV. Lanaren garapena**

Proposamen honetan marko teorikoan aipatutako guztia hartu da kontuan eta horrez gain, eskolan ezagututako egoera zehatzetik abiatuta diseinatu da esku-hartzea. Jarduera honek, musika aktiboki egitea du ardatz, hots, ikasleen proposamen musikalak kontuan izanik, euren pentsamendua eta barruan dutena musikaren bidez adieraztea bultzatuz. Beraz, esan genezake betiere sormenari bidea irekiz diseinatu dela honako proposamen hau.

##### **a. Testuingurua**

Proposamen hau Bilboko eskola publiko batean burutu da, martxoa eta apirila bitartean. Nahiko eskola txikia da, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapak soilik daude eta linea bakarra du.

Aipatzekoa da eskolan bertan dagoen ingurune kulturala oso anitza dela, ikasleen ehuneko kopuru handia etorkinak edota etorkinen seme-alabak izanik. D eredua nagusi izan arren, euskara maila nahiko baxua da, eskolaz kanpoko hizkuntza ingurunea nahiko erdalduna baita, familietan bereziki. Maila sozio-ekonomiko baxuko familiak dira gehienak, orokorrean nahiko desegituratuak; guraso asko bananduta eta beste kasu batzuetan bietakoren bat atzerrian lanean.

Proposamen hau 5. mailako ikasleek burutu dute, 19 hurrek zehazki. Eskolako gela guztiak ezagutu ostean, gela honek bazuen zer esana, proiektua gorpuzteko egokia ikusi genuen. Ikasle bat izan ezik beste guztiak etorkinen seme-alabak edo etorkinak dira, bada etorri berria denik ere. Oso gela mugitua eta hiztuna da, eta testuinguru oso zailak dituzten ikasleak daude. Badira bi diputazioak bere gain hartu dituenak esaterako. Orokorrean esperientzia negatibo asko jasan dituzten haurrak dira; etxean biolentzia ikusi izan dutenak, jasan dutenak eta ikusten dutenak.

Gelan haien arteko harremanak nahiko kolokan daude, errespetu handirik gabe tratatzen dute elkar, ikasgelako egunerokotasunak askotan eztanda egiten du. Hala ere, tutoreak aipatu duenez, kurtso hasieratik gaur arte bilakaera izan dute, tutoretzetan programa ezberdinen bitartez lantzen dihardute hainbat jarrera eta balio.

#### **b. Proposamenaren helburua, egitura eta zergatia**

Testuingurua ezagututa, proposamen honen helburu nagusia talde izaera indartzea eta euren arteko harremanak hobetzea izan da, proiektu amankomun baten parte sentiaraztea jomugan.

Bestalde, euren kezkak azaleratu eta horien inguruan kantu bat sortu nahi izan dugu, prozesu hau grabatu eta bideoklipa osatzeko helburuarekin. Amankomunean partekatzen dituzten kezka, ezinegon horien inguruan hausnartu eta auzoan edota euren inguruan aldatu nahiko luketen horri erreparatu nahi izan diogu sorkuntza garatzeko.

Azkenik, musika baliabide gutxirekin egin daitekeela transmititzea ere izan da helburuetako bat. Batetik, erabili dugun materiala eskuragarri duten zerbait da, egia da agian sorkuntza bat grabatzeko kalitatezko materiala eskuratzea ez dela hain erraza, baina sorkuntza bera burutzeko ez da ezer behar. Are gehiago, gaur egun ia denok dugu telefono mugikor bat eta kalitate nahiko onean grabatzen dute. Bestetik, Covid -a dela eta, musika gelara sarbiderik ez genuenez guk geuk ditugun baliabideak (ahotsa eta gorputza) erabili ditugu proiektu hau aurrera ateratzeko.

Aurrez aipatu bezala, euren arteko harremanak sendotzeko proiektu musikal amankomun bat sortzea izan da lan honen funtsa, horretarako kantu bat sortuz eta grabatuz. Hasierako saioetan ezagutu, hausnartu eta ideiak bildu genituen, gero horrekin sortu nahi genuen horri forma eman eta musika egiteko. Hori bideoklip batean jasotzea posible zela ikusita horri eustea erabaki genuen.

Kantua sortzeko, base instrumental bat aukeratu genuen eta plazaratutako ideiekin letra bat sortu. Erritmoa eta gorputzaren arteko koordinazioa landu genituen jarraian zetorren bideoklipa aurrera eramateko, sortu genuen letra horri jarri nahi genion irudia erabaki behar izan genuen; besteak beste, gure estetika, gorputz espresioa eta bideoan ateratzea nahi genuena.

Lana garatzeko, lau musika saioez gain, patioko bi saio (kantuaren letra egiteko), gorputz hezkuntzako saio bat (bideoklipa grabatzeko) eta tutoretzako beste saio bat erabili dira, emaitza (bideoklipa) ikasleekin ikusi eta azken hausnarketa burutzeko.

### c. Proiektuaren abiapuntua eta saioen garapena

Hasteko, ezinbestekoa izan da euren gustu musikalak ezagutzea, horretarako, lehen saioaren bukaeran bakoitzari bere bi kantu gustukoena idaztea eskatu genien. Euren artista edo talde gustukoena artean, hala nola, *Tiko*, *Morad*, *Aiman JR*, *Myke Towers* eta *Maluma* izan dira gehien aipatu direnak. Argi ikusten da reggaetoiaren influentzia, nahiz eta tartean rapa eta trapa ere badiren. Talde hauez gain, batek soilik aipatu du *Huntza* taldea, atera den euskarazko kantu bakarra. *Fito y fitipaldis*, *El niño de la hipoteca* eta *Imagine Dragons* bezalako taldeak ere aipatu dira.

Proiektu hau hasieratik genero musikal konkretu batera mugatu gabe, ikuspegi musikala pixka bat irekitzeko saiakera egin da, estilo ezberdinak jorratuz. Gehien bat, iristen zaigun lehen musika komertzializatutako taldeena izan ohi da eta baliabide moduan interesgarria izan daiteke beste genero batzuk mahai-gaineratzea; ez horrenbeste ikasleek hori entzuteko helburuarekin, hori ezagutzekoarekin baizik. Are gehiago, sorkuntzari dagokionez ikasleek argi zeukaten reggaetoi eta raparen aldeko apustua egin nahi zutela eta hori horrela mantendu da. Ikasleen gustu musikaletatik abiatuz garrantzia aitortu zaie euri, motibazioa areagotze aldera.

Honez gain, eurekin konektatzeko hizkuntzari dagokionean hautu bat egin da, kantuaren “rapa” izango litzatekeena gazteleraz egitea. Tutorearen aholkua izan da momenturen batean gazteleraz abestearena, euskara ez baitute ondo menperatzen, gainera ez dira hizkuntzarekin identifikatuta sentitzen, ez dutelako inguruan erabilgarria ikusten ere.

Dena den, gure ustetan honakoa bezalako jarduerak eginez, hots, beraien interesak eta gustuak kontuan izango dituen jarduerak aurrera eramanez, euskaraz egitea izan liteke hurrengo pausua. Erdarak horrenbesteko pisua duen hizkuntza-inguruneak topatzen ditugun lekuetan, horrelako jarduera batek lagundu diezaieke ikasleei pixkanaka hizkuntza menperatzen eta hau esparru formal batetatik haratago ulertzen.

Jarraian, saioen garapena egunez egun azaldu beharrea proiektuaren atalka garatuko da. Prozesuak lau atal izan ditu: ezagutza eta hausnarketa, sorkuntza, grabaketak (audioa eta bideoa) eta balorazioa.

### **1. Ezagutza eta hausnarketa**

Lehen saioan, historian zehar aldarrikapenerako tresna izan diren genero ezberdinak entzun eta ezagutu genituen; bebopa, euskal rock erradikala eta musika urbanoa gehien bat. Azken honi lotuta, eurengandik gertuago ikusiko zuten adibide bat aurkeztu zitzaion. Bada Iruñerriko talde bat euskaraz zein gazteleraz kantatzen duena, auzo proletario batean eta gainera periferian bizi direla aldarrikatzen dutenak. Eurak diotenez musika tradizionala egiten dute, gaur egungo errealitateari erantzuten diona, bai euren errealitateari behintzat. Hori da proiektu honen oinarria, euren errealitateetik abiatutako sorkuntza musikala egitea. Horregatik adibide hau.

Musika eta gizarteak izan dezaketen lotura ulertzeko eta arlo honetan ere kritikotasunez joka daitekeela ikusteko adibide hauen inguruan eztabaidatu genuen lehen saioan. Identifikatuta sentitzen ziren aspektuak jorratzen hasi ginen eta “auzoko” izaera hori gailendu nahi izan zuten. Euren ahotsa entzuna izatea nahi zuten proiektu honekin, esateko zuten horrek lekua eta garrantzia izan zezan.

Idea ezberdinen inguruan hausnartu genuen, besteak beste, auzoan jolasteko zituzten guneak gutxi zirela, auzoko etorkinekiko eman ohi diren jarrera arrazistak, indarkeria matxista eta kutsadura aipatu zituzten. Kritika eraikitzaile bat egiten saiatu ginen, euren auzoan izan nahiko lituzketen balioak azpimarratuz, errespetua adibidez. Ideia horiek mahai gaineratuta letra bat osatzen saiatu ginen.

### **2. Sorkuntza**

Hortaz, base instrumentala aukeratu genuen reggae-rap estiloko lau proposamenen artean. Interneteko lau proposamen eman genituen gelara eta horien arteko aukeraketa bat egin genuen, ondoren kantuari lotuta genituen ideiei forma ematen hasteko. Hemen, astean saio bat bakarrik edukitzeak asko mugatzen gintuen (aurrerago aipatuko da proiektu hau burutzeko izandako mugen afera).



Jolas ordu bat letrari eskaintzea proposatu nien; noski, aukera emanda nahi zuenak geratu eta nahi ez zuenak patiora jaitsi zedin. Egia esan, ikasle gehienak geratu ziren eta horiekin ideiak bildu genituen. “Auzoko umeak gara” klasean ateratako ideiaren inguruan aritu ginen letra garatzen eta ondoren raparen zatirako errimak adostu genituen. Euren izaera “auzoko umeak gara eta entzun gaitzazue!” azpimarratu nahi izan zuten kantuan (*1. eranskina*).

Zetozen egunetan letrari forma eman eta proposamen zehatzago bat azaldu zitzaien. Oso zaila da hemeretzi pertsonen artean letra bat idaztea, are gehiago, gelako funtzionamendua eta dinamika horren nekagarria izanda; euren artean hitz egiteko txandak errespetatu gabe eta hitza moztuz etengabe. Hala ere, letraren proposamen horri buelta batzuk eman genizkion hurrengo saioan, esamolderen bat edo beste aldatzeko proposamenak egon ziren eta horri garrantzia eman genion.

Melodiari dagokionez, saio horretan bertan base instrumentalaren gainean inprobisatuz estribilloa sortu genuen. Melodia bariazio bat proposatu nien estribilorako eta hortik abiatuta estrofako doinua asmatu genuen. Instrumentalaren gainetik txandaka melodia bariazio ezberdinak abesten zituzten, inprobisatuz, taldean ipuin bat kontatuko balute bezela, baina letrarik gabe. Raparen kasuan, doinuak ez zeukan horrenbeste pisu baina bai erritmoak. Erritmo forma ezberdinekin jolasten aritu ginen hitz eta esaldiei forma emanaz. Hurrengo saiorako *demo* bat grabatu nien eta ikasleei bidali, astean zehar entzun eta buruan izan zezaten.

### **3. Grabaketa eta bideoklipa**

Grabaketa prozesua ezin izan genuen denekin batera egin, batetik Covid –agatik eta bestalde ez zelako posible denok batera dena grabatzea. Hortaz, tutorearekin adostu genuen ikasleak binaka gelatik ateratzea, arratsalde bateko saioan musika gelan muntatu nuen estudio txiki bat. Horrela grabatu ditugu estrofa eta rapa, prozesuan zehar argazki batzuk atera nituen beraiek kameraren aurrean pixkanaka eroso sentituz joateko (*2. eranskina*).

Aldiz, estribilloa, gela bi taldetan banatuta grabatu da, zati hau indartsuena izanik ahots askoren elkarketa baitzen interesgarriena. Hau gorputz hezkuntza zuten arratsalde

batean egin genuen, musikako irakaslearen laguntzarekin. Gela erdiarekin grabatu genituen lehenik estribilloa eta bideoklipeko eszena batzuk, ondoren beste erdiarekin.

Bideoklipean islatu nahi zuten estetika nahiko argi zeukaten, zerbait naturala baina aldi berean jarrera konkretu batekin, “auzoko umeen” ahalduntze bat irudikatuz. Gorputz hezkuntzako arratsalde horretaz gain musikako saio bat ere erabili genuen hau grabatzeko, talde osoaren presentzia garrantzitsua baitzen. Kasualitatez, egun horretan ikasle dezente konfinatuta zeuden eta zeudenen artean grabatu behar izan genuen. Eskolako sarrerako eskaileretan dantza bat egin genuen, aurrez beste patio ordu batean prestatu genuena.

#### **4. Balorazioa**

Azken saioan bideoklipa ikusi genuen eta hausnarketa orri bat banatu nion bakoitzari. Tutoreak arratsalde bateko tutoretza saioko azken ordu erdia utzi zidan, eskertzekoa izan arren, ez nuen izan hausnarketa nahi bezain sakon egiteko aukera. Ez da erreza klasean dinamika ordenatu bat mantentzea talde honekin, hitz egiteko txandak errespetatzea kostatzen zaie, baita arreta mantentzea ere; horregatik hausnarketa paperean egitea erabaki genuen. Hala eta guztiz ere ideia batzuk atera ziren, jarraian komentatuko dugun bezala.

#### **d. Esperientziaren deskribapena**

Proiektu hau aurrera eramatea erronka bat izan da niretzat. Ikasgela oso zaila da eramateko, hasieratik ikusi nuen hori. Hala ere, proposamen honen funtsa hori izan da, inguratzen gaituen horretatik hastea eratzen, sortzen eta sortzen dugun horrek eraldaketarako balio dezakeela konturatzea. Kasu honetan, kanpora begira agian kritika huts batean geratu da baina barrura begira ikasleen arteko harremanak sendotu dituela ikusi dugu tutoreak eta biok. Ikasgela berari eta ikasleen inguruneari erantzungo dion praktika musikala sortu dugu.

Proiektuan zehar musikako irakaslea bidelagun izan dut; bera ordezkua izanik ez zuen gela hau oso ondo ezagutzen baina aspektu musikal eta teknikoetan ezinbestekoa izan da bere laguntza. Gainera, esku-hartzearekin hasi baino lehen, tutorearekin hitz egin nuen ikasleen inguruan, honek, ikasleen errealitatea ezagutzen lagundu dit tutoreak haur bakoitzaren inguruko aipamenak eginaz. Izan ere, ordura arte 45 minutuko saioetan

ikusi zitekeen ikasleek motxila handiak zekartzatela berekin baina astean saio bakarrean zaila da gelaren orokortasuna ezagutzea. Tutorearekin hitz egin ostean eta kasu zehatzak ezagututa, momentu batean bertigoa sentitu nuen.

Saio bakoitza ebaluatuz joan gara musikako irakaslearen laguntzarekin. Haurren jarrera behatuz joan gara eta ikusi dugu nola hasieratik bukaerara eboluzio bat egon den, konfiantza eta errespetu aldetik aurrerapausoak ikusi ditugu.

Hasieran ikasleek ez zuten beraien burua horrelako zerbait egiteko gai ikusten, ez ziren proposamenarekin identifikatuta sentitu. Gaitasunak ez zeuzkatela komentatzen zuten eta musika sortzea musikariek soilik egin ahal zuten zerbait zela. Ordea, saioak igaro ahala jarduerarekin konektatu dute, segurtasuna irabazten joan dira eurengan eta proiektuan sinesten. Euren ahotsa entzuna izan dela ikusi dutenean euren inplikazioa handituz joan da, ideiak, lana egiteko gogoia eta ilusioa nabaritu dugu. Hori erakutsi dute jolas orduetan klasean geratuz, pasilloetan topo egin eta ea grabaketa zer moduz zihoan galdetuz, eta tutoreari klaseetan esku artean genuenaren berri emanaz.

Hala eta guztiz ere, proposamena burutzeko muga eta zailtasunak izan ditut. Finean, musika saioak astean 45 minutukoak izanik, klase aldaketa egin eta prest egoterako denbora izugarri joaten da eta saioa oso motz geratu. Martxoan hasi eta apirilean zehar garatu da proiektua, kontuan izanda tartean aste santuetako oporrek prozesua dezente moztu dutela. Zaila izan da tutorearekin astean zehar beste saioen bat hau garatzeko adostea bera ere lanpetuta baitzegoen gainerako edukiekin.

Denboraren mugekin eta aldi berean presioarekin ibili garen sentsazioa izan dut, are gehiago, zerbait sortzearen ideia kontraesangarria suertatu da batzuetan. Ondo dago haurrak motibatzen dituelako azken sorkuntza bat izateak, baina aldi berean emaitza hori lortzeko denboraren mugak aspektu guztiak lantzea zailtzen du. Denbora luzeagoa izango bagenu, aspektu musikal batzuk (inprobisazioa, sormena, erritmoa, mugimendua, kantua...) lasaiago landuko genituzkeen, baita aspektu pertsonalak ere, harremanei, jarrera eta balioei sakonago erreparatuz.

#### **e. Ikasle eta irakasleen ahotsak**

Kantua eta bideoklipa osatuta ikasleen iritzia jakitea ezinbestekoa izan da. Prozesua nola bizi izan duten eta nola sentitu diren, zer ikasi duten eta zer den musika eurentzat

jakiteko, galdetegi bat banatu zitzaizen azken saioan. Hala ere, ebaluaketa kontuan izan da proiektua burutu bitartean ere, saio bakoitzaren bukaeran minutu batzuk uzten zitzaizkien egindakoaren inguruan hausnartu eta iradokizunak botatzeko. Ikasleek saio amaieran esandakoa kontuan izaten genuen hurrengoa prestatzeko garaian.

Ordea, azken saioan bai garrantzitsua zela orokortasun batean proiektua ebaluatzea. Idealena ahozko balorazio bat egitea bazen ere, ez zen posible izan tutorearekin saio bat adostea, hortaz, paperean burutu zuten proiektuaren inguruko azken hausnarketa. Horrez gain, ikasle batzuk konfinatuta zeuden eta 13 ikasleek soilik erantzun ahal izan zuten galdetegia.

Eurak esan didatenez, paperean nahiko zaila egin zaie euren iritzia islatzea, gainera denboraz juxtu ibili ginen; hala ere, euren ahotsa azpimarratzeko modu bat izan da. Ikasleek jarri dutenari erreparatuz, orokorrean positiboki bizi izan dute proiektua. Bideoklipa egiten oso ondo pasa dutela, barre egin dutela, abestia gustatu zaiela diote, nahiz eta pare bat ikaslek azaldu duten bideoan batzuk besteak baino gutxiago azaltzen direla, eta hori ez zaiela gustatu.

Gehienek ustetan kantu bat eta bideoklip bat sortzea lortu dugu. Ikasle batek jarri du lagunekin gehiago egoteko aukera izan dutela eta beste batek harremanak hobetu direla dio. Beste batek bere lagunekin duen elkarbizitza hobetzea lortu dutela aipatu du. Gainera, lagunekin ondo lan egiten eta elkarbizitzen ikasi dutela diote ikasle gehienek, bik izan ezik, hauek diote ez dutela ezer ikasi.

Musika eurentzat zerbait garrantzitsua bezala kalifikatu dute; erlaxatzeko tresna bezala balio diela diote batzuek, besteek sentimenduak espresatzeko modua ere badela. Bada musika denbora pasa bat dela dioenik eta badira musika “zerbait polita” bezala definitzen dutenak. Ikasle batek argi idatzi du: “niretzat ni naiz % 60 kirola eta % 40 musika” (3. *eranskina*).

Orain arte musika klaseetan egin dutenarekin alderatuta hau zerbait ezberdina dela esan dute. Askotan jarduerak euren artean ez dutela loturarik diote, kantu solteak ikasi dituztela besterik gabe. Kasu honetan, “proiektu oso bat egin dugu”. Ikasle batek dio ezberdina dela idaztea edo egitea, euren parte hartzea aktiboa izatea asko eskertu duela. Talde lana ere azpimarratu nahi izan dute eta orain pixka bat gehiago errespetatzen

dutela elkar. “Orain arte egin dugunarekin alderatuz hau dibertigarriagoa iruditu zait, barre asko egin dut” -dio ikasle batek. Argi esan dute orokorrean ez daudela ohituta musika modu honetan egitera, baina hala ere gustura sentitu direla.

Tutoreak esperientzia positibo gisa baloratu du proiektua, haien arteko lankidetzaz azpimarratu nahi izan du. Testuinguru zailetatik datozen haurrak direla dio eta eskolan estimulu positiboak behar dituztela, honakoa horietako bat bezala definitu du. Ikasleek jarduerarekin konektatu dutela aipatu du, eurak musikarekin badutela harremana, egunerokotasunean asko entzuten dute, eta kasu honetan, horrelako proiektu batekin eskolan erakusten diegun musika harremanduago ikusi dutela ikasleek euren gustuekin. Etorkizunean bideoa eskuragarri izan eta honekin gogoratzea, beste proiektu bati ekiteko motibazio izan daitekeela dio.

Musikako irakasleak, aldiz, gehiago ezagutu du prozesua bera, saio gehienetan presente egon baita. Aitortu du neketsua izan dela momentu batzuetan, elkarren artean hitz egiteko txandak errespetatu gabe jokatzeko ohitura dutela, nahiz eta hori denbora laburrean lantzea zaila den. Esan du nola ikasleen jarrera aldatuz joan den denbora pasa ahala eta inplikazioa handitu dela nabaritu duela. Esku-hartze honen ostean, ni eskolatik joanda ikasleek karta batzuk idatzi zizkidatela komentatu zidan eta gehienak eskertza mezuak izan dira.

Aurrez aipatu bezala niretzat erronka bat izan da gela honekin lan egitea, hala ere, bidea gorabeheratsua eginagatik pozgarria izan da euren mezuak irakurtzea. Benetan uste dut denbora aldetik oso mugatuta egon garela eta horrelako proiektu bat sakonago landu daitekeela saio gehiago izanda. Hala ere, baldintzak baldintza gustura nago egindako lanarekin, uste dut aztertutako horretatik irakaspenak atera eta gai izan naizela eskolako errealitateari erreparatutako proposamen bat diseinatu eta aurrera eramateko.

## **V. Ondorioak**

Lan honek zituen helburu nagusiak bete direla esan genezake, ikasleen kezketatik abiatutako proposamen musikal bat diseinatu baita, eurak izanik lan honen protagonista eta ahotsa. Bitarte horretan, ikasleak auto-konfiantza irabazi dutela ikusi dugu, musika egitea goi-gaitasunekin lotu gabe, egingarria dela konprobatu dute. Ikusi dute ez dela

musikari profesionalek soilik egin dezaketen zerbait, eurak dituzten baliabide eta jakintzarekin ere egin dezaketela musika.

Gainera, ikasleek badute zer esana eta eurentzat espresio bide bat izan da horrelako proiektu bat gorpuztea. Sentimendu, kezka eta gustu musikaletatik abiatuta, musika lan bat sortzeko gai izan dira, konpromisoa erakutsi dute eta oztopoak oztopo oso ondo egin dute lan. Gainera, bizitzari eta gizarte errealitateari lotutako gai garrantzitsuei heldu diegu (Fernández eta Jorquera, 2017).

Romero-Cardonak (2004) aipatu bezala, haurren garapen pertsonalean izan du garrantzia prozesu honek. Honekin lotuta, gelako harremanei dagokienez ere aldaketa bat ikusi ahal izan dugu. Lanean zehar aipatu bezala, errealitate oso ezberdinetatik datozen haurren topaleku da esku-hartzea burutu den ikasgela hau eta beraien artean talka dezente daude. Denbora honetan zehar elkarbanatu duten proiektu honekin talde sentimendua indartzea lortu da, euren arteko errespetua zainduz, hitz egiteko txandak errespetatuz eta denen ideiak ontzat eta garrantzitsutzat hartuz. Elkarren artean zapalduz baino elkarrekin lan eginez egingo baitute aurrera, ikasle batek balorazio orrian jarrita bezala: “Orain pixka bat gehiago errespetatzen dugu elkar”.

Laburbilduz, ikasleak konfiantzazko klima batetara hurbiltzea lortu da ikasgelan musika ardatz izanik (Mercadal, 2007). Marko teorikoan aipatu bezala musikak haurren bizitza zeharkatzen du, jaiotzen garetik presente daukagu baina eskolan txertatzen dugun momentuan errealitatearekiko fokua galtzen du askotan. Lan honen bidez espermentatu dugu ikasleen ahotsak entzuten ditugunean eta musikaren bidez haien ahotsaz gain sentimenduak, nahiak eta esperientziak adierazteko aukera ematen diegunean, inplikazioa, bizikidetzeta eta errespetua handiagoak direla; ikasgelako gatazkak eraldatzeko aukera emanez (Cabedo eta Díaz, 2015).

Esku-hartzean azaldu den moduan, haurrek konpromisoa, kritikotasuna eta elkarrekiko errespetua landu dituzte proiektu amankomun bat eskuartean izanik. Zerbaiten parte sentitu dira eta eskolako elkarbizitzan pausu bat eman dute aurrera.

Honez gain, esperientziaren beste zutabe batzuk ere izan dira garrantzitsuak: sormen musikal kolektiboa garatzeko aukera eta espazioa uztea, ahotsak, letrak eta musikaren osagai ezberdinak esploratzea. Teknikari hainbesteko garrantzia eman gabe, musika

hezkuntza gaurkotuagoa eskaini da, musika komunikatu eta aldarrikatzeko baliagarria izan daitekeela erakutsiz, era berean, gaitasun musikalak eta sormena landuz.

Azken finean, ikasgela barrura begirako eratze eta eraldatze prozesu bat izan da lan hau, ikasleen bizipenetatik sortzen hasitakoa eurengan eragitera iritsi baita. Musika hezkuntzaren indarra eta garrantzia argi geratu da eta hezkuntza sistemaren barruan garrantzia aitortu behar genioke, arte diziplinak ez baitira edertasunaren adierazlesoilik, errealitatea ulertzeko eta honi erantzuteko balio diezagukete.

## **VI. Etika profesionala eta datuen babesa**

GrAL hau egiterakoan etika profesionalak eskatzen dituen prozedurak jarraitu dira une oro, baita datuen babeserako legeak zehazten dituenak ere. Ekintzaren subjektu izandakoen giza eskubideak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean enuntziatutako eskubideen arabera bermatu dira, hauen interesak lehenetsiz eta haien autonomia eta askatasuna errespetatuz.

Proiektu honetan parte hartu duten ikasleen familiek euren seme-alabak grabatu ahal izateko baimena sinatu dute, hauek adin txikikoak izanik gurasoen esku geratzen baita erabaki hau. Honekin ados agertu ez diren familien seme-alabak ez dira bideoklipean agertu, hori bai, kantuaren sorkuntzan eta grabaketan denek parte hartu dute.

Eskolak proiektuaren berri jakin izan du momentu oro. Lortutako datu guztiak, bai partaideen eskutik bai zentroko gainerako kideengandik, lan hau aurrera eramateko baino ez dira erabiliak izango. Lana osatzerakoan jaso eta erabilitako informazio guztia modu arduratsuan erabili da datuen babeserako legearen oinarriak jarraitu direlarik.

## Erreferentzia bibliografikoak

---

- Alcázar, A. (2010). La pedagogía de la creación musical, otro enfoque de la educación musical. *Eufonía*, (49), 81-92.
- Avalos, I. (1999). La sociedad del conocimiento. *Revista SIC*, 617, 295-297.
- Bachmann, M. L. (1996). La rítmica Jacques-Dalcroze. *Eufonía: Didáctica de la música*, (3), 7-20.
- Burnard, P., & Murphy, R. (2017). *Enseñar música de forma creativa*. Ediciones Morata.
- Cabedo, A. & Díaz, M. (2015). Arte y música en la educación obligatoria, algo más que un detalle curricular de buen tono. *REMIE: Multidisciplinary Journal of Educational Research*, 5(3), 268-295.
- Carr, W., & Kemmis, S. (1988). *Teoría crítica de la enseñanza: la investigación-acción en la formación del profesorado*. Barcelona: Martínez Roca.
- Conejo, P. A. (2012). El valor formativo de la música para la educación en valores. *Dedica. Revista de Educacao e humanidades*, (2), 263-278.
- Damaceno, G. G. (1980). *The Edgar Willems approach to music education*. University of Cincinnati.
- Dávila Balsera, P., & Amezaga Albizu, J. (2003). Juventud, identidad y cultura: el Rock Radical Vasco en la década de los 80.
- Delalande, F. (2008). Hacer y escuchar, los dos accesos complementarios a la música. In García, C., *La competencia artística: creatividad y apreciación crítica* (pp. 9-23). Ministerio de Educación Cultura y Deporte, Subdirección General de Información y Publicaciones
- Delalande, F. (2004). La enseñanza de la música en la era de las nuevas tecnologías. *Comunicar*, 12(23), 17-23.
- Delalande, F., Vidal, J., & Reibel, G. (1995). *La música es un juego de niños*. Buenos Aires: Ricordi.
- Elliott, D. J. & Silverman, M. (2015). *Music Matters: A Philosophy of Music Education*. New York: Oxford University Press.
- Elliott, D. J. (1989). Key concepts in multicultural music education. *International Journal of Music Education*, (1), 11-18.
- Fernández-Jiménez, A.; Jorquera-Jaramillo, M.C. (2017). El sentido de la educación musical en una educación concebida como motor de la economía del conocimiento: una propuesta de marco filosófico, en *Revista Electrónica Complutense de Investigación en Educación Musical*, (14), 95-107.
- Garzarelli, J. G. (2011). La música un lenguaje universal. In *Encuentro Paranaense, Congreso Brasileño de Psicoterapias Corporales, XVI, XI*. Recuperado de: <http://www.centroreichiano.com.br/artigos/Anais> (Vol. 202011).
- Hemsey de Gainza, V. (2014). Educación musical siglo XXI: problemáticas contemporáneas. *Revista da ABEM*, 19(25).



- Hemsey de Gainza, V. (2004). La educación musical en el siglo XX. *Revista musical chilena*, 58(201), 74-81.
- Hemsey de Gainza, V. (1997): *La transformación de la educación musical a las puertas del siglo XXI*. Buenos Aires, Guadalupe.
- Jackson, P. (2002). Acerca de saber enseñar. *Práctica de la enseñanza*. Buenos Aires: Amorrortu.
- López Aymes, G. (2012). Pensamiento crítico en el aula.
- Mercadal, M. D. R. C. (2007). El clima del aula: un abordaje desde la ética. *Cuadernos de Investigación Educativa*, 2(14), 7-27.
- Regelski, T. A. (2008). Music Education for a Changing Society. *Diskussion Musikpädagogik*, 2008 (Heft 38), 34-42.
- Romero-Carmona, J. B. (2004). Las nuevas tecnologías y la expresión musical, otros lenguajes en la educación. *Comunicar: Revista Científica de Comunicación y Educación*, 12(23), 25-30.
- Samper, A. (2021). Pedagogía y creación: la música al servicio de la expresión del ser humano. *Eufonía: Didáctica de la música*, (86), 49-55.
- Sarrionandia, J. (1992). *Gartzelako poemak*. Susa.
- Valerio, J. (2009). Bebop y Charlie Parker: revolución y evolución. *ESCENA. Revista de las artes*, 64(1).
- Vélez Gutiérrez, C. F. (2013). “Una reflexión interdisciplinar sobre el pensamiento crítico”. *Revista Latinoamericana de Estudios Educativos*. No. 2, Vol. 9, pp. 11-39. Manizales: Universidad de Caldas.
- Woodford, P. (2005). *Democracy and Music Education: Liberalism, Ethics, and the Politics of Practice*. Bloomington and Indianapolis: Indiana University Press.